

2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 922100 TOKIKO ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKOA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 922100 SOPORTE JURÍDICO Y ECONÓMICO ENTIDADES LOCALES

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Programa honek honako helburu hauek dauzka: toki erakundeei aholkularitza juridikoa eta ekonomikoa ematea, epaiketetan defendatzea, eta sustatzea; kontzejuen elkarteei (Arabakoari eta Gasteizkoari) dirulaguntza izendunak ematea; lau aseguru poliza sinatzea Arabako kontzejuen arrisku batzuk estaltzeko; eta inbertsioak egitea informazioa kudeatzeko aplikazioetan.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

Egindako ohiko jardueren artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- Tokiko hainbat erakunderen epaiketetako abokatu defentsaren eta ordezkapenaren gastuak Arabako Foru Aldundiak hartu zituen bere gain ekitaldian zehar.
- Aholkularitza juridikoa eman zaie Arabako erakundeei, kontuan hartuta administrazio kudeaketak garrantzi handia duela Arabako landa ingurune biztanleengandik hurbilen dauden eremuetako toki administrazioaren funtzionamendu optimoa lortzeko.
- 2023ko aurrekontuan programa honetarako esleitutakoaren kontura dirulaguntza izendun bana eman zaie Arabako Kontzejuen Elkarteari eta Gasteizko Kontzejuen Elkarteari, 104.000,00 euro eta 36.400,00 euro hurrenez hurren. Laguntzen xedea elkarteen langileen gastuak eta jardun gastuak ordaintzea izan da.
- Tokiko Erakunde Prestakuntza Plana prestatzen parte hartu da, IVAPen bidez.
- Udalei eta kuadrillei aholkularitza eman zaie aurrekontuak, aurrekontu likidazioak eta kontu orokorrak prestatzearen eta kontabilitateko eta aurrekontuetako gorabeheren gainean.

I. MEMORIA

El objetivo que persigue el programa queda establecido como el asesoramiento jurídico y económico, la defensa en juicio y la promoción de las entidades locales, así como la concesión de subvenciones nominativas a las Asociación de Concejos (tanto de Álava como de Vitoria), la concertación de cuatro pólizas de seguros destinadas a cubrir diversos riesgos de los concejos de Álava e inversiones en aplicaciones de gestión de información.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Entre las acciones ordinarias desarrolladas caben destacar las siguientes:

- Los gastos derivados de la defensa letrada en juicio y de representación de diversas entidades locales, de los que se hizo cargo la Diputación durante el ejercicio.
- Asesoramiento jurídico a las distintas entidades alavesas habida cuenta de la importancia de la gestión administrativa en el logro del óptimo funcionamiento de la administración local que se desenvuelve en los ámbitos más próximos al habitante del medio rural alavés.
- Concesión de las subvenciones nominativas consignadas en el presupuesto del 2023 para este programa, a favor de la Asociación de Concejos de (ACOA) y la Asociación de Concejos de Vitoria (ACOV), por importe de 104.000,00 euros y 36.400,00 euros, respectivamente. Estas ayudas se destinan a hacer frente a diversos gastos de personal e inherentes a su funcionamiento.
- Participar en el diseño del Plan de Formación de las Entidades Locales a través del IVAP.
- Asesoramiento a ayuntamientos y cuadrillas en la elaboración de Presupuestos, Liquidaciones presupuestarias y Cuentas Generales, incidencias contables y presupuestarias.

2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 922100 TOKIKO ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKOA

- Kontzejuen eta ondasun erkidegoen kontuak jaso eta kontrolatu dira, baita aurrekontuak eta aurrekontu likidazioak ere.
- Toki erakundeen zerga ordenantza ereduak prestatu eta eguneratu dira.
- Toki erakundeen zorpetze eragiketei buruzko txostenak egin dira.
- Arabako toki erakundeen aurrekontuen inguruko informazio ekonomikoa bidali zaio ministerio eskudunari, bateratu eta Europako Batzordeari bidaltzeko.
- Toki erakundeei ordenantzen eta arriskuak aseguratzearen inguruko eta aurrekontu egonkortasuna betetzeko egin beharrekoen gaineko aholkularitza eman zaie, kontzeptuak argitu zaizkie eta egindako kontsultei buruzko txostenak eman dira.
- Kontzejuei aholkularitza eman zaie kontuak taxutzearen gainean.
- Administrazio batzarren batzordeak eta batzordekide-kudeatzaileak izendatu dira postuak hutsik geratu direnean.
- Izen aldaketei, banantzei eta udalak eta kontzejuak sortzeari buruzko espedienteak izapidetu dira.
- Toki erakundeen ekonomia eta aurrekontu bideragarritasunerako planen eta ekonomia eta finantza planen jarraipena egin da, indarrean dauden foru arauetan ezarritakoarekin bat etorritik.
- Arauetan aldaketak egiteko proposamenak landu dira, toki erakundeetako finantzen tutoretzaren eta finantzaketaren arloan, beste foru aldundiekin elkarlanean.
- Inbertsioak egin dira informazioa kudeatzeko aplikazioetan.

Era berean, programa horren barruan dago Arabako Lurralde Historikoko kontzejuen aseguruak finantzatzeko partida, eta, beraz, Arabako Foru Aldundiak bere gain hartzen du Arabako kontzejuen hainbat arrisku estaltzeko aseguruak kontratatzearen arloan sortutako gastuen zati bat.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 922100 SOPORTE JURÍDICO Y ECONÓMICO ENTIDADES LOCALES

- Recibo y control de las cuentas de los concejos y comunidades de bienes, así como de los Presupuestos y de Liquidaciones presupuestarias.
- Confección y actualización de los modelos de ordenanzas fiscales para las entidades locales.
- Elaboración de informes sobre operaciones de endeudamiento de las entidades locales.
- Remisión al Ministerio correspondiente de la información económico-presupuestaria de las entidades locales alavesas, con el objeto de que sea enviada, de forma consolidada, a la Comisión Europea.
- Asesoramiento a entidades locales en materia de ordenanzas, de aseguramiento de riesgos, aclaración de conceptos y evacuación de informes sobre consultas planteadas, así como temas relacionados con el cumplimiento de la estabilidad presupuestaria.
- Asesoramiento a concejos en materia de confección de cuentas.
- Nombramientos de comisiones y vocales-gestores de las Juntas Administrativas en las que se produjeran vacantes.
- Tramitación de expedientes de cambio de denominación, así como de desanexiones y constituciones a niveles municipal y concejil.
- Seguimiento de Planes de Viabilidad económico-presupuestario y Planes económicos-financieros de entidades locales según las Normas Forales vigentes.
- Elaboración de propuestas de cambios normativos en materia de tutela financiera y financiación de entidades locales, en coordinación con las otras Diputaciones Forales.
- Inversiones en aplicaciones de gestión de la información.

Así mismo, dentro de este programa se encuentra la partida destinada a la financiación del aseguramiento de los concejos del Territorio Histórico de Álava, de modo que la Diputación Foral de Álava soporta en parte los gastos derivados en materia de contratación de seguros para la cobertura de diversos riesgos de los concejos alaveses.

2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

Programa: 922100 TOKIKO ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKOA

Kontzeju askok adierazitakoari erantzunez, arrisku hauetatik babesteko aseguru polizak kolektiboki kontrata daitezela sustatzen du Aldundiak: erantzukizun zibileko arriskuak, kontzeju kideak beren eginkizunak betetzen ari direneko istripuak, kontzejuaren jabetzako eraikinen estaldura eta auzolanetako istripuak. Borondatezkoa da poliza horiek kontratatzea, eta kontratazioa zein kontratatu ondoko kudeaketa Aldundiak egiten du. Hortaz, kontzejuek ez dute inolako izapiderik egin behar. Ezagutza eta parte hartze maila handiena lortzea sustatzeko, Aldundiak primen kostuaren % 50eko dirulaguntza ematen die atxikitako kontzejuei.

Gainera, polizak modu zentralizatuan kontratatzen direnez, unitateko prezio hobea lortzen da bakoitzerako, kontzeju bakoitzak bere kontura kontratatuta baino.

Azaroaren 22ko 708/2022 Erabakiaren bidez, Arabako kontzejuek dituzten zenbait arrisku estaltzeko aseguru polizak kontratatzeko prozedura irekia adjudikatu zen 2023ko eta 2024ko ekitaldietarako.

Hain zuzen ere, korporaziokideen eta fede emailearen istripuetarako eta auzolanetako parte hartzeetarako poliza Surne, Mutua de Seguros y Reaseguros enpresari adjudikatu zaio, eta horren guztirako prezioa 26.150,44 euro izan da. Eraikinak eta erantzukizun zibila estaltzeko poliza AXA Seguros Generales SA de Seguros y Reaseguros enpresari adjudikatu zaio, eta prezioa 168.635,83 euro izan da.

Horri erantsi behar zaio Aon SA enpresari adjudikatu zitzaizkiola, abenduaren 22ko 236/2020 Foru Aginduaren bidez, aseguru artekaritzako zerbitzuak, Arabako kontzejuen aseguru sistema osatzen duten polizei dagokienez. Zenbatekoa: 3.500,00 euro 2023an.

Era berean, Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Lurralde Oreka Zuzendaritzak berak laguntza teknikoko zerbitzua ematen du Obra eta Zerbitzuen Foru Plana gauzatzeko behar diren administrazio kontratuen espedienteak kontratazio plataforman izapidetzeko eta agiriak idatzeko.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 922100 SOPORTE JURÍDICO Y ECONÓMICO ENTIDADES LOCALES

Atendiendo al sentir manifestado por muchos concejos, la Diputación promueve la contratación de forma colectiva, de pólizas de seguros para las coberturas de riesgos de responsabilidad civil, accidentes de corporativos en el ejercicio de sus funciones, cobertura de edificios propiedad del concejo y accidentes en veredas. La adhesión es voluntaria, y tanto la contratación como la gestión posterior se realizan por la Diputación, evitando a los concejos cualquier tramitación. Como incentivo para lograr la mayor difusión e implicación, la Diputación subvenciona el 50 por ciento del coste de las primas a cada uno de los concejos adheridos.

Además, al ser contratadas cada una de las pólizas de manera centralizada, se consigue mejor precio unitario para cada uno de ellos, que si fueran contratados individualmente por cada concejo.

Por Acuerdo 708/2022, de 22 de noviembre, se adjudicó el procedimiento abierto para la contratación de pólizas de seguros para cubrir diversos riesgos de los concejos de Álava, para los ejercicios 2023 y 2024.

En concreto, el precio de las correspondientes a accidentes de corporativos y fiel de fechos y participaciones en veredas adjudicado a la compañía Surne, Mutua de Seguros y Reaseguros ha sido de un importe global de 26.150,44 euros, y el relativo a la cobertura de edificios y responsabilidad civil adjudicado a la empresa AXA Seguros Generales, S.A. de Seguros y Reaseguros ha resultado ser de un montante de 168.635,83 euros.

A ello hay que añadir, la adjudicación a la empresa Aon S.A., mediante Orden Foral 236/2020, de 22 de diciembre, de los servicios de correduría de seguros en relación con las pólizas que conforman el sistema de aseguramiento de los concejos alaveses, por un importe de 3.500,00 euros para el periodo 2023.

Asimismo, de acuerdo con la establecido en la Disposición Adicional Novena de la Norma Foral 9/2017, de 12 de abril, reguladora del Plan Foral de Obras y Servicios de la Diputación Foral de Álava, desde la propia Dirección de Equilibrio Territorial se presta un servicio de ayuda técnica para la redacción de pliegos y tramitación en la plataforma de contratación de los expedientes de los contratos administrativos necesarios para la ejecución del Plan

2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA LURRALDE
ANTOLAMENDUA

Programa: 922100 TOKIKO ERAKUNDEENTZAKO
LAGUNTZA JURIDIKO ETA
EKONOMIKOA

Zerbitzu hori kontzejuentzat eta 1.000 biztanletik beherako udalentzat da. Zerbitzu hori ezinbesteko tresna bihurtu da toki erakunde txikiek inbertsioak egin ahal izan ditzaten.

DIRU SARRERAK

“Kontzejuen aseguramenduen finantzaketa” partida, 2023an, aseguruak kolektiboki kontratatzekeo sistemarekin beren borondatez bat egin duten kontzejuek egin beharreko diru sarreraren aurreikuspenarekin hornitu da. Hori primen kostuaren ehuneko 50 da, alegia, 99.143,14 euro.

Ezarrিতাকo helburua Arabako tokiko erakundeek behar bezala funtzionatzea eta antolatzea dela kontuan hartuta, esan liteke helburua lortu dela, gauzatutako jarduerak bat etorri direlako aurreikusitakoekin eta tokiko erakundeek adierazitako betebeharrak ase direlako eta baita programaren helburuekin lotutakoak ere. Batera zein bestera, betetze maila, kopuruz zein kalitatez, handia izan da.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 922100 SOPORTE JURÍDICO Y
ECONÓMICO ENTIDADES
LOCALES

Foral de Obras y Servicios.

Dicho servicio se ofrece para los concejos y para los ayuntamientos menores de 1.000 habitantes. El citado servicio se ha convertido en una herramienta imprescindible para que entidades locales pequeñas puedan llevar a cabo sus inversiones.

INGRESOS

La partida “Financiación Aseguramiento Concejos” se dota en 2023 con la previsión de ingresos a realizar por los concejos que voluntariamente se han adherido al sistema de contratación colectiva de seguros. Representa el 50 por ciento del coste de las primas, esto es 99.143,14 euros.

Teniendo en cuenta que el objetivo que se define es el óptimo desarrollo en su funcionamiento y organización de las entidades locales alavesas, el cumplimiento de los objetivos viene dado no sólo por la adecuación de las acciones llevadas a cabo con las previstas, sino también en tanto en cuanto fueron atendidas las necesidades manifestadas por los entes locales, y relacionadas con los objetivos establecidos en el programa. En ambos sentidos, ha de afirmarse que el grado de cumplimiento, tanto cuantitativo como cualitativo, puede considerarse alto.